

Pasai Antxoko udal liburutegiak XV. Pasaia Hiria Olerki lehiaketa antolatu du euskaraz eta erderaz

Lanak gutxienez 200 lerro eduki beharko dituzte eta abenduaren 21a baino lehen entregatuko dira

Antxoko udal liburutegiak hamabosgarren urtez antolatu du Pasaia Hiria Olerki lehiaketa. Bai gaztelerazko, eta bai euskarazko sailetan, 800 euro jasoko dituzte irabazleek, eta 400 bigarren saria eskuratzen dutenek. Abenduaren 21a izango da lanak entregatzeko azken eguna.

Antolakuntzatik jakinarazi dutenez, parte hartzeko 15 urtetik gora izan behar dira. Hizkuntza bezala, gaia ere librea da, baina "beste lehiaketetan arituak izan ez diren obra original eta argitaragabeak aurkeztu beharko dira".

Egile bakoitzak nahi adina original aurkeztu ditzake, baina, gutxienez, 200 lerro izan beharko dituzte. Lanak, esan bezala, abenduaren 21a arte bidali beharko dira Antxoko udal liburutegira, Hamarretxeta kalea 13, 20110 Pasaia (Gipuzkoa).

Antolatzaileen esanetan, "egileak lanaren hiru kopia aurkeztu beharko ditu, makinaz edo ordenagailuz, biko tartearekin eta alde batean bakarrik idatziak. Azalean lanaren izenburua agertuko da. Ez du sinadurarik eraman behar, ezta egilearen inolako zehaztasunik ere. Honekin batera, gutunazal itxi bat bidaliko da eta kanpoaldean lanaren izenburua eta espezialitatea ipiniko dira. Barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, adina, telefonoa eta helbide elektronikoa, izanez gero, sartu beharko dira.

Sariak eman gabe utzi ditzake epaimahaiak, edota aldatu eta beste sari batzuk sortu. Epaimahaiak eta antolatzaileek hala erabakitzen badute, erabakia behin betikoa izango da.

Irabazleak eta sariak zein diren hedabideen bidez jakinaraziko du epaimahaiak, eta erabakia, esan bezala, bere horretan onartu beharko dute partehartzaileek.

Irabazleen sariak Pasaia Udalaren jabetzapean geldituko dira eta datorren urtean, 2009an alegia, liburu batean argitaratuko dituztela adierazi dute. Bestalde, sarituak izan ez diren lanak eskuratu ahal izango dira.

Horretarako, hilabeteko epea izango dute, epaia jakinarazten dutenetik. Parte hartzaileek jasotzen ez dituzten lanak, Pasaia Udalaren jabetzapean geldituko dira. >a.m.